

Hizkuntza-gaitasuna adinaren arabera

5-25 urte bitarteko arabarren erdia baino gehiago elebidunak dira gaur egun, Arabako elebidunen batez bestekoaren (%25) bikoitza, alegia. Gazteak dira arabar elebidun gehienak. Hortaz, adinean gora egin ahala, jaitsiz doa elebidunen ehunekoa. Adibidez, 50 urtetik gorako arabarren % 10 baino gutxiago dira elebidunak.

Araban dauden elebidunen arteko alderik handienak gazteenen eta zaharreneen artean gertatzen dira. Izan ere, 60 urtetik gorako arabarren %7 ere ez dira elebidunak, baina % 60 baino gehiago dira elebidun 20 urtetik beherakoen artean.

Elebidun hartzaileen ehunekorik txikiena zaharreneen artean dago (%4,3) eta adinean behera egin ahala handituz doa. Ehunekorik handiena 30 eta 34 urtekoen artean (%34,9) dago. 30 urtetik beherakoen artean elebidun hartzaileak gutxituz doaz, hezkuntza sistematik elebidun datozelako hein handi batean.

Erdaldun elebakarrei dagokienez, 50 urtetik gorako arabarren %80 baino gehiago dira. Adin horretatik behera, eta batez ere 35 urtetik behera, erdaldun elebakarren jaitsiera oso handia da (%16 baino gutxiago dira 20 urtetik beherako gazteen artean) .

Bilakaera dela eta, azpimarratzekoa da 1981ean arabar elebidunen ehunekoa ez zela %4ra ere iristen. Orduetik hona nabarmen egin du gora arabarren euskalduntzeak, gazteenenak bereziki. Horrek erdaldun elebakarren jaitsiera orokorra ekarri du. Horrela, gazteen adin-taldeetan, elebidunak gaur egun elebidun hartzaileak eta erdaldun elebakarrak baino gehiago dira.

Hizkuntza-gaitasuna adinaren arabera. Araba, 2006							
		Elebidunak		Elebidun hartzaileak		Erdaldun elebakarrak	
Adin-taldeak	Guztira	Kop.	%	Kop.	%	Kop	%
>=65	48.649	3.177	6,5	2.092	4,3	43.380	89,2
60-64	16.531	934	5,6	1.116	6,8	14.481	87,6
55-59	19.676	1.354	6,9	1.560	7,9	16.762	85,2
50-54	20.597	2.006	9,7	2.069	10,0	16.522	80,2
45-49	23.264	3.407	14,6	3.442	14,8	16.415	70,6
40-44	25.183	4.693	18,6	4.497	17,9	15.993	63,5
35-39	25.916	5.245	20,2	6.518	25,2	14.153	54,6
30-34	27.346	6.940	25,4	9.541	34,9	10.865	39,7
25-29	25.740	9.992	38,8	7.921	30,8	7.827	30,4
20-24	19.065	9.963	52,3	4.943	25,9	4.159	21,8
15-19	13.684	8.617	63,0	2.966	21,7	2.101	15,4
10-14	11.746	8.054	68,6	2.270	19,3	1.422	12,1

5-9	12.129	7.866	64,9	2.584	21,3	1.679	13,8
Araba	289.526	72.248	25,0	51.519	17,8	165.759	57,2
Iturria: EUSTAT							

Taulan ikusten den bezala, erdaldun elebakarrak nagusi dira 35 urtetik gora tarte guztietan, baina 5etik 24ra bitartean elebidunak dira nagusi; elebidun hartzaile gehienak 20-39 ¹tartean daude, eta, 25-34 adin tartean 3tik 1 elebidun hartzailea da.

¹ Helduen euskalduntzean matrikulatutako ikasleen ohiko adina.